

Nairobitarra ipuin eta mahai jokoa

20 urteko esperientzia jaso dute bi lanetan ▶ 3



Abel Barriola eskuz banakako finalean izango da, atzo Nagoreri irabazita

LEITZA ▶ Leitzarrak 22-16 irabazi zion irurtzundarrari Beotibarren, txapelketako partidurik onenean ▶ 6



Abel Barriola leitzarra sake bat egiten atzo Beotibar pilotalekuan. IMANOL GARCIA



Euriak ez zuen Euskararen Eguna zapuztea lortu

ARESO ▶ Herenegun 100 lagun inguru bildu ziren bazkarian; Bengoetxea-Errandonea izan ziren irabazle Trikitixa Lehiaketan ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko lau ordezkari dira artisau azokan Durangon

Otero, Hiruki, Gorrotxategi eta Urdapilletaren produktuak daude ▶ 5

TOLOSA ▶

Lobo Electrico, Japoniatik bueltan

Ostiralean izango dira Bonberenean ▶ 4

TOLOSA ▶

Araba etorbideko biribilunearen lanak amaitzear daude

Bidegorriaren lanak laster hasiko dira udan bukatuta egon ahal izateko ▶ 2



HIRIGINTZA ▶

Bibiribilunearen lanak amaitzear Araba etorbidean

Atzealdeko errepidea aste honetan asfaltatuko dute; bidegorria egiten laster hasiko dira udarako bukatuta egoteko, kiroldegiko igerileku berria irekitzerako



Araba etorbideko biribilune berria egiteko lanak laster amaituko dituzte, abenduaren erdialdean kalkulatzen dute udal agintariak. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Araba etorbidean udan hasi ziren berritze lanak eta erabateko bukaera martxoaren inguruan izatea espero dute udal agintariak. Garai bateko paperfabrikako —gaur egun Maxi-Eroski— zubi ondoko biribilunea, Araba etorbidearen atzealdea berritu, aparkaleku berriak egin, trenbideko horma atzeratu, Usabalgo kiroldegi berrirako argi kableak pasatu, bidegorria... Lan asko eta oso garrantzitsuak gainera Tolosaren etorkizunerako.

Lanen hasiera dezentete atzeratu zen eraikuntza grebaga-tik. Lehen lanak Araba etorbideko atzealdea berritzea izan zen: espaloi berriak jarri, errepidea berritu, saneamendua... Aste honetan bertan bukatuko dira asfaltatze lanak. Norabide bakarra izango du bide horrek, Gasteiz aldera alegia, eta San Esteban auzotik lur azpiko pasabidea zeharkatuta datorren trafikoa bideratuko du Gasteiz aldera. Baina bi karril izango ditu: bat auzoko bizilagunen-tzat, garaieetara sartu ahal izateko eta bestea San Estebango trafikoa biribilune berrira bideratzeko. Aparkaleku batzuk ere badira hor jada eginak, baterian, eta aurrerago Geltokialdea auzo berrian ere aparkaleku gehiago izango dira. Bide hau zabaldu egingo da, trenbideko horma 80 bat zentimetro atzeratuz. «Hori Geltokialdea auzo berria eraikiko duen enpresaren ardura da eta hor ari gara presa sartu nahian», dio Kepa Diaz de Alda Hirigintza Batzordeko zinegotzi buruak. Ondoren lur azpiko oinezko pasabidea itxi zuten. «Osasun aldetik oso gaizki zegoen eta ixtea erabaki zen», dio zinegotziak.

Segurtasuna hobetzeko

Jarraian zubiaren pareko biribiluneari ekin zioten. Barrualdean sei metroko radioa eta kanpoaldean 15 metroko radioa izango du. Kamioiek eta bira egiteko nahiko leku izateko, zubiaren losa abaniko forman zabaldu dute. Biribilune honek oinezkoentzako segurtasun handiagoa lortzea du

helburu. Olarrain auzotik abiadura handiak datozen autoak frenatuko baititu. Egungo zerbabidea ere altuago jarriko dute. Lanak abenduaren erdialdean amaituko dituzte.

Bidegorriaren lotura

Bidegorri berriaren lotura ere hor doa. Alegiatik dator eta herriaren erdialdea zeharkatu ondoren —San Frantzisko

Tolargiko subestazio berria ari dira egiten

Araba etorbideko lan hauek oso estu daude lotuta eraikitzen ari diren Usabalgo kiroldegi berriarekin. «Udan igerilekua behintzat irekita egotea nahi dugu. Eta Tolargi udal zerbitzua izanda, nahiago dugu gure argi indarra sartzea kiroldegian», adierazi dio HITZARI Kepa Diaz de Alda Hirigintza Batzordeko zinegotzi buruak. Gaur egun tentsio altuko dorrea San Esteban auzoko Ttorre baserritik gora dago. Orain San Esteban auzoan Tolargiko subestazioa egin eta bertan tentsio ertaina bilakatu du argi indarra. Orain argi instalazioko tutuak ari dira sartzten obra egiten ari diren inguruan. Maxi-Eroskiko



Tolargiko subestazioa ari dira egiten San Esteban auzoan. J.SAIZAR

zubiaren gratututa zeharkatuko dute tutuek Ori ibai. Baina lanik ikusgarriena Araxes ibai zeharkatzea izango da,

Ikastolako oinezko zubiaren parean, horretarako tutuak ubidearen azpitik pasatuko baitituzte. ◀



KEPA DIAZ DE ALDA
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

«Trenbideko horma atzeratzea Geltokialdea eraikiko duen enpresari dagokio; hor ari gara presa sartu nahian»

etorbidea, Rondilla eta Larramendi kaleetatik joango da. Belatera ere izango du adar bat—, Villabona aldera jarraituko du. Herriko ikastetxeetara adar batzuk izango ditu, ikasleek bizikletaz joan ahal izateko. Araba etorbidean biribilunetik pasatuko da bidegorria. Gainera pasabide batzuk ere izango ditu.

Gogoratu behar da bidegorriaren zati batzuk eginda daudela. 2002an Laskorain ikastolatik suhiltzaileen parkerainoko zatia egin zuten eta 2003an Belate pasealekuko zatia.

Bidegorriaren lanak abenduaren erdialdean hasiko dira eta lau hilabete iraungo dute. Udarako bukatuta egotea nahiko lukete udal agintariak, igerileku berria irekitzen denerako. «Bidegorriaren lanak Jesuitenaraino Inauterietarako bukatu nahiko genituzke. Inauterietan San Frantzisko kalean libre eduki behar dugulako. Eta ondoren jarraituko lukete kale horretatik aurrera», dio Kepa Diaz de Alda Hirigintza zinegotziak.

ASIA ▶

Nairobiarra bizirik

‘Munduko ipuinak’ ipuin bilduma eta ‘Nairobiarra: mundua ezagutzeko jolasa’ mahai jokoa argitara eman ditu 20 urteko esperientzia jasoz



Nairobittarren inguruko ipuin bilduma eta mahai jolasa salgai aurki daiteke liburutendetan. EDURNE AYUSO

EDURNE AYUSO

Nairobiarra autobusak negia bihurtu ditu bidaiari askoren ametsak. Mundu osoko errepide gainean eman dituen 20 urte baino gehiagotan, milioi bat kilometro egiteaz gain, ehunka abentura, milaka anekdota eta beste hainbeste oroitzapen sortu ditu gurpilen joan-etorrian. Nairobiarra autobusaren motorra gehiago piztuko ez den arren, ezin esan hilik dagoenik, burdina, beira, plastikoa... ipuin eta jolas bihurtu baitira. Jadanik gurean dira Nairobittarrak bere begietatik ikusi dituen *Munduko ipuinak* eta *Nairobiarra: mundua ezagutzeko jolasa*.

Hogei urteko esperientzia

Nairobittarrak bidaiari asko eraman ditu bere baitan, baina ameslari fidel bat izan bada, hori, Josu Iztueta izan da. Bera izan da hain zuzen ere, *Argia*

astekariarekin batera, autobusa ipuin eta jolas bihurtzeaz arduratu den pertsonetako bat. Iztuetaren hitzetan, «hogei urteko esperientzia nolabait ere gorde nahi genuen. Eta, agian, norberak aukera duenean, txikitan edukitzea gustatuko litzaiotkeen hori sortzen saiatzen da. Seguru, horrelako gauza batekin askotan egin nuela amets. Horregatik pentsatu genuen, zortzi herrialdeetako ipuinak sortu eta autobus itxurako kutxa batean sartzea. Ipuin hauek zazpi-zortzi urte bitarteko haurrentzako dira aproposak. Ipuinak hauspo baten moduan luzatzen diren liburuxketan idatzi ditugu eta autobus itxura duen kaxa batean sartu ditugu».

Iztueta bera arduratu da ipuinak idazteaz, eta, Amaia Etxeberria izan da irudiz jantzi dituen. Istoria hauen bidez, munduko beste herrialde batzuetako haurrak nola bizi diren jakingo dute Euskal Herriko haurrek.



Josu Iztueta. E. AYUSO

Mahai jolasa

Helduentzako, mahai jolas bat sortzea pentsatu zuten, horretarako nahikoa material bazuten eta. Josu Iztuetak azaldu duenez, «jolas mota asko daude, dadoarena da seguraski jokatzeko modurik zaharrena, baina ez genuen zoriaren ara-

berako joko bat egin nahi, bidaiak ez baitira zortean araberakoak izaten».

Bidaiariak, Ushuaiatik abiatu eta Alaskarainoko bidea egin beharko du. Baina irabazleak ez du zertan lehen iristen denak izan beharrik, azken batean, denek irabaziko baitute zerbait. Mundua ezagutzeko jolas honetan, bost kontinentetako mapak aurkituko ditugu. Mapak diseinatzeaz Garbiñe Ubeda tolosarra arduratu da eta bertan bidaiatzeko galderak berriz, Ander Izagirrek egin ditu. Iztuetaren ustez, «Mapa baten aurrean, amets asko egin litezke, nik behintzat gaztetan hala egiten nituen. Gainera, aktualitateko gertae- rak geografikoki kokatzean jakitea eta herrialde horiek ezagutzea garrantzitsua da».

Jolas hasieran, *Nairobittarrak* banatuko zaizkie jokalariei. Hauei esker, bidaiari zehar aurki ditzaketen oztopoak gaindituko ditzuzte, «gertatu liteke gurpil bat zulatzea, poliziak pasaportea eskatzea e.a., kasu hauetan erabiliko dira *Nairobittarrak*». Dadoarekin zorte ona izan eta oztopoak gainditzeaz gain, garrantzitsua da galderak ondo erantzutea. Iztuetak azaldu duenez, «galderak egiterakoan, informazio interesgarria ematen saiatu gara, ez genituen galdera soilak egin nahi».

Nairobittarra: mundua ezagutzeko jolasa azken batean, familia giroan ondo pasatu eta ikasteko mahai jolasa da. Honi esker, geografia eta herrialde- etako ohitura eta bitxikeriak ezagutzeko modua izango dugu.

Jende askoren lana

Nairobittarra ipuin eta mahai jolas bihurtzeko jende askok lan egin behar izan du: ideien garapena, mapa eta galde- ren diseinua, maketazioa, in- primaketa e.a. Guztira, hamar hilabete pasatu dituzte eta Iztuetak nabarmendu duenez, «elkarri animoak emanez aritu gara, pazientziarik galdu gabe. Hamar hilabete hauetan ez dugu irribarrerik galdu».

Munduko ipuinak eta *Nairobittarra: mundua ezagutzeko jolasa* merkatuan dira: Durango Azokan egun hauetan eta liburutendetan. Ez ezazue galdu etxetik bertatik bidaiatzeko aukera paregabe hau.

TRAFIKOA ▶

TAO bulego eta txanpon-txartel berriak

TAO —Trafikoa Arautzeko Ordenantza— zerbitzuak informazio bulego berria du Gorosabel kaleko 48an, 08:30etik 14:00etara. Bertan TAOko txanpon-txartelak jarri dituzte salgai 3 eurotan eta 30 euroko kargarekin. Aparkatze lanak errazte aldera, hemendik aurrera txanpon-txartelak eskuratzeko aukera izango da. 30 euroak bukatutakoan, parkimetroetan berritoe ere karga daiteke: zenbat euroekin kargatu nahi den, zenbateko huraxe sartu behar da parkimetroan. Sistema berri hau txanponekin ibiltzea baino erosoa delako jarri dute martxan.

MUSIKA ▶

Gaur ‘Salve’-a abestuko du musika kaperak

Maria Sortzez Garbiaren bezpera dela eta, Santa Maria parrokiako musika kaperak —abesbatza, organoa eta orkestra— gaur 19:00etako mezaren ondoren Felipe Gorreren *Salve* abestuko du. Bestalde, bihar, Maria Sortzez Garbiaren eguna, 11:00etako mezetan Eduarko Mokoroaren *In honorem S. Joannis Baptistae* meza eskainiko du Santa Mariako kaperak, lau ahots nahasietan, organo eta orkestraren laguntzarekin.

MUSIKA ▶

Bihar, Txistulari Bandaren kontzertu berezia

Bihar eguerdian, Maria Sortzez Garbiaren meza nagusiaren ondoren, Udal Txistulari Bandak kontzertu berezia eskainiko du udaletxe- arkupetan Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean. *Elkor mendi* biribilketa, Jose Olai- zolaren *Oleskari zaharra* (al- kate soinua), Pablo Sorozaba- len *Batelarien zortzikoa*, Jose Ignazio Ansorenak mol- datutako *Bidarrai martxa*, Ansorena beraren *Kaskago- rria* fandangoa eta *Dantzara- kooa* arin arina eta Raimundo Sarriegiren *Comparsa de ca- ballerías viejas*. Laguntzaile gisa Xabier Zelaia eta Joakin San Sebastian tronpetajole- ak ariko dira.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zerbitzua: 653212
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etb: 672411
Ikaztegjeta. Medikua: 65 33 29
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.
 ▶ Ambulatorioa, larrialdiak: 943 46 11 11
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion Klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Ambulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ollareaga, A. Korreo 2 (Tolosa). 943 67 01 28.
 Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.
Ume zaintzailea. Bi ume zaintzeko emakumea behar da. 615 72 73 84.
Irakaslea. Lenguaje eta matematika klase partikularrak emateko irakaslea behar da, Batxilergo azken mailan. 639 96 71 30.

MUSIKA ▶

IÑIGO ASENSIO

Urriko bigarren astean beren iraupen luzeko lehen lana —¿Has visto al lobo eléctrico?— kaleratu eta hilabete beranduago, diskaren aurkezpen biran guztiz murgilduta dabilta Lobo Eléctrico taldeko partaideak. Euskal Herrian zenbait kontzertu eskaini eta arrakasta asimilatzeke ia astirik izan gabe, azaroaren 4an eman zioten hasiera Japoniar abentura honi. Hiru kontzertu eskaini dituzte bertan, bi Tokion eta azkena Nagoyan.

Tokoko lehen kontzertuan beste bi talderekin batera jo zuten. Hura, beraien harrera kontzertua izan zen eta jendearengan ikusmina piztu zuten. «Oso entzulego entregatua aurkitu dugu, implikazio bikaina nabaritzen zen», diote taldekideek. Bigarren kontzertua ere Tokion izan zen, jendez gainezkako musika areto handi batean, eta azkena, Nagoyan, beraien agur-kontzertua. Japoniar talde ezberdinekin batera jotzeko parada izan dute beren egonaldian eta bertako mailarekin ikararuta etorri dira. «Oso musikari onak daudela ikusteko aukera izan dugu», dio Perrolobo baxujoleak. Horrez gain, bertan dagoen maila teknikoa ere izugarria dela diote. «Insonorizazioa eta soinu eta argi tresnak punta-punta-koak dira», dio Capitan Sarra-ceno baterajoleak.

Dena den, bertan topatu dituzten baldintzak bikainak izan badira ere, hemen dagoen giro alternatiboa bota dute faltan. Conde Eléctrico gitarjolearen hitzetan «lan egiteko modu profesionalizatuak dituzte, guztia oso zorrotza da, ezin zaitezke gidoitik atera; ez dago inprobisazioarentzako lekurik». Japoniarren lan egiteko modu efizientearen baldintzak dira hauek, baina beraientzat esperientzia oso aberasgarria dela aitortzen dute lauek.

Shogo Komiyana izan da asiar herrialdearekin duten kontaktua eta egindako lanarekin gustura, otso elektrikoek ez diote errepikatzeke aukerari aterik ixten. «Gu egindako lanarekin oso pozik etorri gara, erreindimendu ona emateaz gain, jendearen interesa ere piztu dugularren inpresioa geratzen zaigulako», diote taldekideek. Shogo Komiyana delakoa, Fermin Muguruza eta Betagarri bezalako musikariak Japoniako merkaturaren egotearen arduraduna da. Europa osotik ari da lanean eta udaberrian Euskal Herrira etorriko da bi talde japoniarrekin.

Bertan egindako lanaren baltzea egiterakoan, Dr. Magma abeslaria errealista da. «Lana



Kontzertu eta kontzertu artean Tokioko Shinjuku auzoan turista modura ibili ziren tolosarrak. HITZA

Japoniar izan dira Lobo Eléctrico taldeko kideak

Bere disko berriaren aurkezpen biraren barnean bisitatu dute Japonia; Tokio eta Nagoyan eman dituzte kontzertuak

ondo egin dugula iruditzen zaitgun arren, bertako merkaturaren sartzeari oso zaila dela badakigu, Betagarri bezalako talde batek hiruzpalau egonaldiren ostean lortu du entzulegoa finantzaz; lasai ibili behar dugu».

Beraien *rock&roll*-ari gogoz emanez jarraitzen dute tolosarrak eta diotenez eragin zehatzik gabe. «Taldea ezberdinen antza hartu digutela esan digute, baina orokorrean jendea ez dator bat». Jendearen adostasun falta hori erraz azaltzen dute. «Bizitza bera da jaso dugun eragin, talde mordoaren entzuten dugu, baina horrek ez gaitu bakarraren estilopean kokatzeko. Guk *rock&roll*-a dugu abiapuntu eta hortik aurrera burura datorkigunarekin egiten dugu gure musika, helburu zehatzik gabe».

Japoniarrekin bueltak

Kontaktzeko pasadizo ugariarekin etorri dira Japoniatik, baina lauak bat datoz kamisetekin

izandako hanka sartzeari kontzertuean. Bertako jendearengana gehiago hurbiltzeko asmoz, japoniarrez idatzitako mezua zuten kamiseta batzuk egin zituzten, bertan saltzeko aukera izango zutela aurrikusiz. Hauetan *Gaua isuriz* leloa agertzea zuten helburu, eta horretarako lagun bati eskatu zioten itzulpena egin zezan. Arazoa itzulpenean zegoen. Japoniar alfabetoan hizki bakoitzaren esanahia kontestuen arabera aldatzen da eta kasu honetan japoniarrek ez zuten esanahirik ulertzen. «Hizki batzuk, kontestu horretan ez zuten esanahirik, eta horrela leloaren interpretazio ezberdinak egin zitezkeen». Gauzak horrela, kamisetek, gauari buruzko interpretazio ezberdinetarako aukera ematen zuten eta japoniarren artean broma ugari izan ziren. Japoniarrekin horrenbeste buelta eman ondoren, ingelesezko leloa zuten kamisetak izan ziren bertan salduenak.

Lau urtez etengabe lanean aritu ondoren, denbora horretan egindako lan guztiaren saria jasotzeko ordua iritsi zaie Lobo Eléctricoko kideei. Japoniatik iritsi orduko Espainiatik jotzen ibili dira; Errioxan abenduaren 3an eta Zaragozan 4ean eta 5ean. Gaur Donostiako Kandelan joko dute eta abenduaren 10ean berriz ere etxean izango dira, Bonberenean, Brigada Criminal-ekin batera kontzertu bat eskaintzeko. Azken hilabetearen gertatutako guztiari buruz hausnartzeko astirik ez zaie geratuko, izan ere, 12an Gasteizen izango dira, 17an Oñatiko Gaztelekun eta 18n Beasainen. Ondoren Espainia aldera joango dira, beraien birarekin jarraitzeko, tartean Euskal Herrira itzuli eta Katalunia bisitatzeko tartea egiteko asmoa duten arren. «Atsedean hartzeko denbora gehiegi ez daukagu, baina gusatzen zaiguna egiten dugun artean ez dugu nekerik nabaritzen», diote tolosarrek.



Konstituzio egunean, lanean

EKONOMIA ▶ Eskualdeko hainbat enpresak lan egin zuten atzo LAB sindikatuaren deia jarraituz. Lan egutegiak «inposatzen» dituen Hispanitatearen Eguna eta Konstituzio Eguna bezalakoekin kontra agertu da LAB «jai iraingarriak» iruditzen zaizkiolako. Intsumisioaren eta lan egutegi propioaren alde ari da lanean. Argazkian, eskualdeko enpresa bat atzo goizean lanean. O. SIKIZABAL

Atxagaren hitzaldia Durangon

ASTEASU ▶ Bernardo Atxagak *Lekuak literaturan* hitzaldia eman zuen herenegun Durangoko 39. Liburu eta Disko Azokan. Aretoa jendez bete zen eta gustura entzuten zuten idazle asteasurraren solasaldia. Mororen *Utopia*, Eldorado, Stevensonoren *Altzor uhartea*, paradisia, zerua, geografiak, iragandako lekuak... izan zituen mintzagai. J. SAIZAR

GIZARTEA ▶

Eskualdeko artisauak Durangon

Otero pilotagilea, Hiruki ehunak, Euskal Txerria eta Gorrotxategi gozotegia bere produktuekin daude

JOXEMI SAIZAR

Durango liburu eta diskoen azokagatik da ezaguna, baina artisauak ere bere txokoa izaten dute egun hauetan eta Tolosaldeko lau artisau bertan dira egun hauetan bere produktuekin: Anoetako Otero pilotagilea, Bidegoiango Pello Urdapilleta euskal txerrikigilea eta Tolosako Hiruki ehungilea eta Gorrotxategi gozotegia.

Azoka honek bederatzigarren edizio du eta hauetako batzuk beteranoak dira bertan. Aurten bost eguneko da, hilarren 4tik 8ra, eta lehen egunetan gustura agertu dira eskualdeko eskulangileak («jende eta erosketa kopuruarekin»).

Otero kooperatibak lau kide ditu eta era guztietako pilotak ditu bere salmahaian. «Batez ere eskuzkoak saltzen ditugu, eta haur txikiak egiten ditugun pilota gozoak», adierazi dio HIRZARI kooperatibako kide batek. Pisu gutxioko pilota hauek 9-12 eurotan saltzen dituzte eta pisuagoak 30 euro bitarte. «Pilota asko behar izaten dituztenek normalean klubean bitartez erosten dizkigute, tailerrera etorrita edo eskatuta», erantsi du. Bitxikeria modura, igandean Bartzelonako erosle bat izan zuela aipatu du. Bihar, azokako azken eguna, hau-

rentzako pilota tailerra egingo dute anoetar hauek.

Hauengandik metro gutxira Hiruki ehungintzak du bere postua Durangon, sei-zazpigarren urtez. Zeta margotua dira bere espezialitatea eta horretan zortzi bat urte daramatza. Baina pontxoak, bufandak, mantak, lanparak eta bestelakoak ere egin eta saltzen dituzte. «Aurten egun asko dira eta lehen egunetan jende gutxiago ibili da. Dena den data onak dira, laster Gabonak direlako eta opari asko egiten direlako. Ondo ari gara saltzen. Zetazko koadroak dira salduenak», azaldu du Lourdes Laskibarrak.

Gorrotxategi gozotegiak zortzi urte darama Durangoko azokara joaten bere produktuekin. Aurtengo berrikuntza cava, sagardo eta txakoliz betetako bonboiak dira eta salmentetan nabari dutela adierazi dute. «Bonboiekin batera, mandarina, frambuesa eta armagnac turroiak eta xaxuak ere asko ari gara saltzen», azaldu du Arantxa Gorrotxategik. «Jendeari erosi aurretik probatzea gustatzen zaio eta aukera hori ematen dugu», erantsi du.

Azkenik Euskal Txerriaren postuan Urdapilleta anaia zeuden eta Iñaki Barriola urdaiazpikoa moztuzten. Bigarren urtea da bidaniarrentzat.



Goian Otero eta Hirukiren postuan; behean Gorrotxategi eta Euskal Txerriarenak. J. SAIZAR

«Euskal txerria berreskuratzeko lanean ari gara eta jendeari urdai gizona asko gustatu zaio, batez ere adinekoren artean», dio Pello Urdapilletak. Txorizo-

ak eta urdaiazpikoak ere badi-tuzte salgai. «Tentatzeko eman eta jendeak erosten du normalean. Bezero batek esan dit: 'Gauza asko daude azokan eta

onak, baina garai hauetan otordu baterako onena zuen hestekiekin hasi eta Gorrotxategiko gozoekin bukatzea da'», dio bidaniarrek.

ABURUZA Erakuntzak, S.A.



Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

LEITZA ▶ PILOTA

Finalerako txartela Barriolarentzat

Hasieratik aurrea hartu zion leitzarrak Jorge Nagoreri eta 22-16 irabazi zuen Beotibarren jokatuako finalaurrekoa

OLAIA ESKITXABEL

Abel Barriola nagusitu zen atzo (22-16) Beotibar pilotalekuan Jorge Nagore pilotariaren aurka jokatuako eskuz banakako lau t'erdiko finalaurrean. Garraipenarekin gustura ageri zen Barriola: «Partidaren hasieratik eta Nagoreren hutsei esker, aurre hartzea lortu dut eta zuzen aritu naiz; partida bukatzen jakin dut». Nagore ere oso ondo aritu zen; sakez bost tanto egin zituen: «Min gehiena sakez egin dit», aipatu zuen leitzarrak.

Aimar Olaizolaren aurka jokatu du leitzarrak finaleko partida. Abenduaren 19an izango da finala; hala ere, eta eskua behar bezala ez duenez, ziurrenik «data astebez atzeratzea» eskatuko duela azaldu du.

Lepo ageri zen Beotibar pilotalekua. Nagorek eman zion hasiera finalaurreko partidari; lehenengo tantoa sakez egin zuen. Hala ere berehala Barriola jarri zen agintari; 6-1 irabazten zihanean deskantsua eskatu zuen Nagore irurtzundarrak, partidak hartutako norabidearekin haserre.

Ondo etorri zitzaion nonbait lasaitzeko denbora hartzea, izan ere, bueltan, Barriolaren gertaerak lortu baitzuen. Leitzarrarengandik tan-



Pilotakada ederrak ikus ahal izan ziren atzo Beotibarren. IMANOL GARCIA

to batetara jarri zen Jorge Nagore pilotaria (11-10), baina ezin izan zuen berdinketa lortu. Leitzarrak hiru tanto egin zituen jarraian baina atzetik Nagorek beste lau egin zituen 14-14ko berdinketa lortuz.

Barriolak aurre hartzea lortu zuen, bost tanto jarraian eginez (19-14). Jokaldi onak eta tanto bikainak izan ziren leitzarrak egindakoak. Akatsak ere izan zituen eta Nagorek ez zion barkatu; markagailuan gora egin zuen irurtzundarrak, 19-16ean jarritz. Atsedenerako

tartea eskatu zuen orduan Barriolak eta lehen Nagoreri gertatu bezala, indarberrituta irten zen kantxara.

Partida irabazi arteko tantoak jarraian egin zituen Nagore ezer egiteko aukerarik eskaini gabe. Azkenengo tantoa partidak merezi bezalako izan zen, gainera; Nagorek zabal utzitako pilota erantzun eta txapa gainean ozta-ozta utzi ondoren, jarri zion amaiera finalaurreko partidari, lau t'erdiko finalerako txartela poltsikoratuz.

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Hirugarren porrota, Laskorain taldekoek

Larunbatean, hilaren 11n, Altamiraren aurka jokatu du Berazubini

O. ESKITXABEL

Aurreko bi jardunaldietako porrotei beste bat gehitu behar diete Laskorain taldeko jokalariek; izan ere ostiralean Lezoko Allerru Bekoerrotataldearen aurka 3-4 galdu zuten tolosarrek. Zorte txarrekin jarraitzen du taldeak, azken partidarekin ere punturik poltsikoratu gabe.

Sailkapenean gorantza dihoan Allerru Bekoerrotatalde lezoarra aurkari gogorra izan zen tolosarrentzat: «Lezoarren jokoa ezaguna da: fisikoki jokalaririk indartsuak, aurkari hamabost metrotan itxaroten diote kontraerasoa bilatuaz eta bestela baloi luzeak jaurtitzen dituzte pibotaren burua jomuga», azaldu du Laskorain taldeko entrenatzaileak.

Partida gogorra

Laskorain taldeko jokalariek izan zuten baloien jabetza; gol aukerak sortzea, ordea, oso zaila suertatu zitzaizen «Horrek aukera etorriko denaren konfiantza eta pazientzia eskatzen du eta eta azken jardunaldietako emaitzen ondorioz horixe falta zaie horitxoei», aipatu du entrenatzaileak.

Oztopoz betetako areto fut-

bol partida izan zen ostiralekoa: «Lezoarren joku aldrebeza, markagailuaren bilakaera —0-1 eta 1-3 galtzen joan baitziren— eta tolosarrek gogor borrokatu zuten oztopo horien aurka: «Eki jubenilaren, Telletxea maisuaren eta Altuna pitxitxiaren golei eskerrak partida berdinketa lortu zuten eta irabazteko zorian ere izan ziren».

Laskorain Ikastolakoek bi minuturen faltan zazpi metro-tatik hesirik gabeko jaurtiketa bat izan zuten, baina ez zuten zorterik izan. Jarraian, eta partida amaitzeko hamabost segundoren faltan eta «era harritgarri batetan», Allerrukoen gola iritsi zen: «Lezoarren kantxako alboko sate batean harmailetatik norbaitek txistu egin eta epaileek txistu egin zutelakoan horitxoak geldirik geratu ziren lezotarrek gola sartzen zuten bitartean», dio Laskoraingo entrenatzaileak.

Datorren larunbatean, abenduaren 11n, Altamiraren aurka jokatu du Laskorainek Berazubini. Egungo zalan-tzak itxaropena bihurtzeko formula aurkitzeko esperantza agertu dute taldeko ordezkariek: «Itxaropenak eta fedoak irrifarra ekarriko digu larunbatean». 19:00etan hasiko da partida Berazubiko kiroldegian.

BERROBI ▶ FRONTENIS TXAPELKETA

Irabazleak erabakiko dira gaur arratsaldean

Niko Artola, finalean sartu den berrobitar bakarra, banakako mailan ariko da

I. GARCIA

Iritsi da Berrobiko Frontenis Txapelketako irabazleak eza-gutuko diren eguna. Gaur izango dira finalak hiru maila ezberdinetan. Aipatzekoa da eskualdekoak ez ezik, kanpotek ere etorri direla jokalariek eta batzuk finalera ere iritsi direla. Mutiletan, binakako mailan, 16:30ean hasiko da partida. Inaki Ulazia eta Asier Imaz (Ibarra), Daniel Rodrigo

eta Manu Oliveiraren (Donostia) aurka. Nesketan, binaka ere, 17:30ean, Eli Iradi eta Eli Lorenzo (Lasarte), Naiara Onsalo eta Lierni Garziaren (Berastegi) aurka. 18:00ak alde-berdinetan. Aipatzekoa da eskualdekoak ez ezik, kanpotek ere etorri direla jokalariek eta batzuk finalera ere iritsi direla. Mutiletan, binakako mailan, 16:30ean hasiko da partida. Inaki Ulazia eta Asier Imaz (Ibarra), Daniel Rodrigo

eta Manu Oliveiraren (Donostia) aurka. Nesketan, binaka ere, 17:30ean, Eli Iradi eta Eli Lorenzo (Lasarte), Naiara Onsalo eta Lierni Garziaren (Berastegi) aurka. 18:00ak alde-berdinetan. Aipatzekoa da eskualdekoak ez ezik, kanpotek ere etorri direla jokalariek eta batzuk finalera ere iritsi direla. Mutiletan, binakako mailan, 16:30ean hasiko da partida. Inaki Ulazia eta Asier Imaz (Ibarra), Daniel Rodrigo

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Jubenilen maila.

Lauburu-Izarra Gorri 11-7

1. Maila A.

Ibarra-Albelda 2-2

Nazio maila B.

Laskorain-Allerru Bekoerrotta 3-4

FUTBOLA

Gorengo maila.

Bergara-Tolosa 0-2

Saillkapena ▶

1. Tolosa	30 puntu
2. Ordizia	28 puntu
3. UPV/EHU	26 puntu
4. Touring	25 puntu
5. Hondarribia	24 puntu

6. Zarautz 21 puntu

7. Real Union B 21 puntu

8. Arexabaleta 20 puntu

9. Pasajes 19 puntu

10. Orioko 19 puntu

11. Mutriku 18 puntu

12. Trintxerpe 17 puntu

13. Aloña Mendi 17 puntu

14. Urola 16 puntu

15. Mondragon 16 puntu

16. Beti Gazte 15 puntu

17. Zestoa 15 puntu

18. Anaitasuna 14 puntu

19. Bergara 12 puntu

20. Oiartzun 8 puntu

Lurreldekako 1. maila.

Tolosa B-Allerru 1-1

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa -San Marcial 4-0

Saillkapena ▶

1. San Ignacio 33 puntu

2. Barakaldo 29 puntu

3. Tolosa 29 puntu

4. Eibar 24 puntu

5. Amorebieta 19 puntu

6. Elgoibar 19 puntu

7. C. Durango 19 puntu

8. Aloña Mendi 18 puntu

9. Lagun Onak 17 puntu

10. Zugazarte 16 puntu

11. San Marcial 16 puntu

12. Zalla 16 puntu

13. Sp. Herrera 12 puntu

14. Olarizu 11 puntu

Kadeteen Euskal Liga.

Real Union-Tolosa 0-1

Jubenilen 1. maila.

Santo Tomas Lizeoa-Intxurre 2-1

ARESO ▶ EUSKARA

Euriak ez zuen euskararen aldeko festa zapuztea lortu

Euskararen Eguna egin zuten herenegun Guraso Elkarteak antolatuta; 100 lagun inguru bildu ziren bazkarian

OLAIA ESKITXABEL

Euskararen Eguna izan zen pasa den ostiralean, abenduaren 3an; eta horren harira, herenegun, igandean, ekitaldi ugari antolatu zituen Aresoko Guraso Elkarteak. Egun hori ospatzen duten hamaikagaren urtea da.

Eguraldi kaskarra tokatu zen eta plazan egitekoak ziren ekitaldiak eskolako trinketean egokitu behar izan zituzten. Pilota partidantzat lekurik ez zegoela eta bertan behera geratu ziren. Gainontzeko ekitaldiak «arrakastatsuak» izan zirela azaldu dute antolatzaileek. Haurrentzako jolasak (koskol bilketa, zaku saltoa, aulki jokoa...), euskal dantzak... egin zituzten.

Pake Toki elkartearen egindako bazkarian 100 lagun bildu ziren.

Musikak protagonismo berezia hartzen du Aresoko Euskararen Egunean. Bazkarian, esterako, Oihana, Alaitz, Jone eta Ane trikitilari gazteen trikiti doinuak izan ziren entzungai. Bazkaldu ondoren, berriz, Aresoko Euskara Zerbitzuak antolatuta, Mendiluze eta Irazu bertsolariaren ateraldiez gozatzeko aukera izan zuten aresoarrek.

Urtero bezala, Trikitixa Lehiaketa egin zuten; hamabi



100 lagun bildu ziren Pake Toki elkartearen egindako bazkarian. HITZA



Sei bikotek hartu zuten parte Trikitixa Lehiaketan. HITZA

urtez azpiko gaztetxoek hartu zuten parte. Eneritz Bengoetxea donostiarra eta Edurne Errandonea andoindarra izan ziren txapeldunak. Sari gisa,

gurasoetako batek bordatutako bi txapela jantzi zituzten irabazleek. Guztira, sei bikotek hartu zuten parte lehiaketan; eta denek jaso zuten saria.

KRITIKA ▶ IÑAKI AGIRREZABAL (AKTOREA)

Estreinaldiaren ajeak

Izenburua. *Farsantres*.
Konpainia. Asvinenea.
Zuzendaritza. Carlos Lopez eta May Gorostiaga.
Ikusle kopurua. 100 lagun.

Poza ematen du Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia Tolosaldeko talde batek ixteak, eta poza handiagoa da, azken emanaldi hori obra baten estreinaldia baldin bada. Hala gertatu zen joan den igandean; Asvinenea taldeak *Farsantres* obra taularatu zuten lehendabizikoz. Ordu eta hogei minutuko emanaldiaren ondoren, burua hainbat irudiz beterik genuela irten ginen Kultur Etxetik. Nahasturik. Beharbada, ideia gehiegi daudelako obra bakar batean. Asmo horietako batzuk oso onak dira, beste batzuk ez hain onak. Kontua da asko direla, eta horiek denak eszenatzeak aldaketa asko egitera behartzen ditu obran parte hartzen duten lau aktoreak. Ondorioz, antzezlanak arintasuna galtzen du. Aktoreak trabatu egiten dira eszenografiaren, objektuen eta jantzien aldaketetan. Eta horri denari, estreinaldiak berez dakartzan zailtasunak gehitu behar zaizkio.

Alfonso Zurro antzerkilari andaluziarren hiru fartsa elkarren artean korapilatuz osatu dute *Farsantres*. Lehendabiziko fartsa oso ongi antzeztu zuten, eta fartsari sarrera emateko argi beltzaren teknika erabiliz egiten duten agerraldia azpimarratzekoa da benetan. Oso ongi darabilte teknika hori obra osoan zehar. Oso ongi manipulatu dituzte objektuak, musika egokiarekin, eta manipulatuzailearen ile mutur bat ere ez da ikusten. Magia egitea lortzen dute.

Ondoren hegan egin nahi duen gizona eta haren neska protagonista dituen fartsa dator. Testu oso ona da, baina ez diote zuku guztia atera. Pimpinak gutxi erabiltzen dituzte, eta hainbat gertaera eszenara eramateko, aktoreak baino egoikiagoak direlakoan gaude. Ekintza asko behin eta berrituz errepikatzen dira, istorioa gehiegi luzatuz. Aipatzekoa da hala ere, nola ikusleek inork eskatu gabe hartu zuten parte obran; hegan egin nahi zuen gizona animatzeko txaloak jo eta jo jardun zuten.

Azken fartsa, Ama Birjinari bihotza kentzen dioten bi lapurrena, ahulagoa da. Batez ere, testua. Eta ondorioz, antzezpeneak indar gutxiago dute. Gainera, ordurako aktoreak nekatuta daudela somatzen da. Azken bi fartsak elkarrekin lotu dituzte Asvineneko lagunak, baina lotura behartuegia dela irudituzi zaitzaun, eta gainera, ikusleek zailtasunak izan zituzten soluzioa interpretatzen.

Idéia asko, objektu asko, agerraldi asko, teknika diferente asko... finean, jende asko. Buru askoren artean eginiko obra dela nabarmena da. Eta batzuetan gehiegi ere badiren arren, horixe da beharbada Asvinenaren marka. Hau da, azken hiru urteotan antzerkiaren, txotxongiloaren eta gorputz espresioaren munduan idea eta proposamen ugari aurrera eramaten auzartu den gizon-emakume taldearen funtzionamendua. Kalitate oneko txotxongiloak egiteko gai direla erakutsi dute, eta behin estreinaldiaren ajeak pasata, eta obra zertxobait finduz gero, koktel indartsua presatuko dute.

hitza *lagunen txokoa*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuz zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA

SHANTY KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Goizean Intxurrera mendiri irteera. 14:00etan, sasibertsolarien bazkaria. Ondoren, bertso poteoa. Gauean, DJ Ipnod. Gaztebearen XVII. urteurreneko ekitaldiak.

Ibarra. Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokiako lokaletan.

Tolosa. Maria Sortzez Garbiaren bezpera dela-eta, Felipe Gorritiren *Salvea* interpretatuko dute 19:00etako mezaren bukaeran.

Tolosa. Material birziklatuaz egindako I. Txotxongilo Lehiaketa, Gaztegunek antolatuta. Gai libre. Lanak Kultur Etxeko Gazte Informazio Bulegoan aurkeztu behar dira. Epea, ostiralean, hilaren 10ean, amaitzen da.

Tolosa. Laskorain Ikastolan Baxilergo ikasketak 1999tik 2003ra bukatu zituzten ikasleen tituluak Orixe Institutuan jaso daitezke NAN erakutsita.

Tolosa. Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek bere argazkiak eraman behar dituzte lehebailehen Aiz Orratz-Veleta elkartera, bestela ez dira egitarauan sartuko.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Luis Laskorainen Koadroak Ostatuan.

Tolosa. Ana J. Ansorenaren zeramikak Lanbroan

Tolosa. Anselmo Elizalderen koadroak Fronton kafetegian
Villabona. Maxola tabernan, Jone Telleriaren margolanak.

KIROLA

Berrobi. Frontenis txapelketako finalak jokatu dira arratsaldean, 16:30etan hasita. Mutilen binakako, nesken binakako eta mutilen bakarkako partidak jokatu dira, hurrenez hurren, herriko frontoian.

ZINEMA

Tolosa. *Alien vs. predator* filma ikusgai Leidor zineman. 19:30ean eta 22:30ean.

Bailara kamararen begiez

ALKIZA ▶ Egun hauetan ikusgai da Kultur Etxean Aiztondoko II. Argazki Rallyan epaimahaiak aukeratu zituen lanen erakusketa



Argazki honekin lortu zuen lehen saria Carlos Ballesteros zarauztarrak. HITZA



Amezketako Leire Arreseigorrek, bigarren saria. HITZA



Hirugarren saria, Carlos Mediavila azpeitiarrak. HITZA

IMANOL GARCIA

Argazki rallyek, gutxienez, bi gauzetarako balio dute: argazkilaritza gustuko dutenek egun eder bat igarotzeko bere afizioa landuz eta bailara edo leku jakin baten aurrean begiak irekitzeko. Eta ez da gutxi inguruan ditugun paisaia, natura eta abarri noizean behin begirada bat ematea.

Tarte bat izanez gero, beraz, ez legoke gaizki Aiztondoko II. Rallyan eginiko argazkien erakusketa bisitatzea. Alkizako Kultur Etxean dago ikusgai, eta gaur eta bihar dira azkeneko aukerak. Goizez eta arratsaldean dago irekia: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

«Loteria da horrelako lehiaketak irabaztea. Epaimahaiaren gustuen arabera dago», azaldu dio HITZari Carlos Ballesteros rallyaren irabazle zarauztarrak. Zerbait jarriko zuen bere partetik, aurreko urtean berak irabazi zuen eta. Artasoro bati egindako argazkia saritu zioten. «Lainoak eta zeru urdina tartekatzen ziren egun horretan eta zain egon nintzen eguzkiak artaburuak distirarazi zituen arte. Argazki polita da, baina nire ustez hobeagoak bazeuden».

Erakusketan udazken koloreak dira protagonistak. Lau gai izan zituzten aukeran parte hartu zutenek: Adunako eliza, Larraulgo panoramika, Alkizako Belako harkaitzak eta Zizurkilgo Otaño plazako zuhaitza (100 urte beteko dituen). Aurkeztu zirenetatik 31 argazki erakusten dira. Aukera ederra bailarari beste begi batzuekin begiratzeko.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Mikel Iturrioz Irigoien.

Gaur 5 urte.
Zorionak familiaren partetik.



ZORIONAK

Polita da aitona eta amona deitzea;
politagoa, hogoeta hamazazpi urte batera eramatea. Zorionak.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!